


Irugarren liburukia:

AINTZINAKO HERRI - SENDAKUNTZA



Aintzinako herri-sendakuntza Zuberoan



HITZAURREA: XEDEAK ETA EGITASMOA

Aintzinako herri sendakuntza ta sendagingoa

Aintzinako zuberotar sendakuntza ta sendagingoen iker-
tzeko xedea gogoan hartu nuenean, nere lanari mugak jarri
nizkion, alegia erdal testuetara ahal bezain gutxi jotzearenak,
non ez zen iharduera horien egiturak zein ziren azaltzeko.
Sendakuntza jakituriaren aldetik, berriz, euskarazko lekuko-
tasun batzu itxaroten nituen eta zubereraz uste baino gehia-
go aurkitu dut. Gure herrialde txikia, berriro, herri idazkien
mundu hortan, handiagoak baino aberatsago agertzen zaigu,
ez baita lekukotasun hain zaharrik beste euskalkietan. Gure
idazkiak züberera herrikoian dira, gehienak argitara gabeak,
eskuz idatzirik herrian baitzebiltzan egiten ez ziren liburuen
lekuan: halakoak ditugu etnografia iturri ditugun komediak,
astolasterrak, errezeta bildumak eta abar erabiliko ditugu-
nak. Ez ditugu halatan ere bazter utziko Zalgize, Oihenarte,
Tartas, Belapeyre-n euskal lanetan agertzen diren aipame-
nak.

Bizpalau sailetan banatu genetzazke bildutako XVI-XIX.
menderarteko idazkiak:

- erran zaharrak edo atsotitzak
- antzerkietako medikuntza solasak
- errezeta bildumak
- elizarako liburuak.

Idazki horik osorik eman ditugu edo osasunari ta senda-
kuntzari buruzko zatiak ateratu dizkiegu, kopiatzaileen hu-
tsak oker nabarmenak zuzendu ondoren. Testu horiekin izan
ditugu zailtasunak - español liburu batzutatik inspiratuak
diren ezker - aldatzaileek ez baitute beti ondo ulertzen edo
beste euskalki bateko itzulpenaren hizkuntza, edo zuberera
zaharkitu bat nekez irakurtzen, euskal testuekin, hots, betiko
detective lana eduki dugu, beharbada, gure ondokoek hobetu
egingo dutena, fotokopiak ematen dizkiegunez gero.

Erdal iturri gutxi erabili dugu, denetara hogeitaz orrialdeeta-
ra iristen ez garelarik; erabili ditugunak dira apotikari kondu
bat benetakoa eta antzerki batetik bildu barbero kondua,
sasi-frantsesean; gero, sendagingoaren egoera zaharra
Zuberoan ulertzeko, hamazazpigarren mendeko Jakes
Belakoaren "*Commentaires à la coutume de Soule*"
Zuberoako foruari egin iruzkinaz baliatu gara, eta Euskal
Herriko giroaren ulertzeko De Lancre, sorgin erretzaile eta
epailea izana mende berdinean irakurri ta zati bat edo beste
itzuli. Aintziñako ur eta iturrien erabilera ulertzeko, frantses
lekukotasun motz batzu sartu ditugu gure lanean, baina esan
dezakegu aintziñako jakintza horren deskribapena ta azter-
ketaren egiteko gure corpus-a gehienbat zubereraz izango
dela.

Lanaren irakur erreztako aurretik euskara batuan emango
dugu laburpena, atzetik iruzkina, eta tartean euskal testuari
ez diogu ohar gehiegirik ipiñiko: alde batetik gakoan artean
euskaratuan emango baitugu hitzen baliokidea, beste aldetik
testu gehienak nahiko hizkuntza onean izanki eta
Euskaltzaindiaren ortografiarekin ematen ditugularik, etnolo-
gialarien atsegina egingo dugu nahiz euskalki ikerleñ bekokia
zimurtaraziko dugun. Noizpeinka zuberotar hiztegi bat tarte-
katuko dugu, emango dugun liburua irakurgarri ta baliagarri
izan dadin, etnologia lana denez gero.

1. Erran zaharrak, atsotitzak.

Etnologian jakin behar dena beti, nor den berriemailea,
zein garaitako ta nola bizi zen bere ingurumen horrekin harre-
manetan: Zuberoako atsotitzak direlata, hirur biltzaile nagusi
zaharrenak, hirurak herriko **haundikiak** ziren goihen postu ta
karguetara iritxi zirenak herrian. Gure ustez zaharrena
1612.an hila baitzen, hamaseigarren mendeko bezala ema-
ten dugu, bere bizi gehiena ta gazte denborako euskal lanak
XVI. mendean egin baitzuten, **Beltran Zalgize** da, Zalgize
(fr. Sauguis) herriko Jauna, aitonen semea; egia da
Lapurdiara kutsuko euskara batean idazten zuela ta bere
olerki guztiak galdu ditugula, salbatu duguna da atsotitz bil-
duma bat, gehienak zubereraz eta hortan **53** osasun ta sen-
dakuntzazkoak bereizi ta hautatu ditugu. Zalgize, XVI. men-
deko olerkari hoberena omen zena Oihenarteren hitzetan eta
bere burua honela aurkezten zuena; bere atsotitzen gatik:

**Nafarroa Behereko Gorte gehiengan, Erregeren
aholkulari denaren arthaz bilduak.**

Garai hartan sendagingoa foruaren testu batzuek zuzentzen zutelarik, ta sendatzaile talde bakoitzak, oraindik estatuturik ez zeukatenez, ez da agertzen horren atsotitzetan herriko / legezko / ez legezko bereizkuntzarik.

Bigarren atsotiz emalea, Arlande Oihenarte izango dugu, bere bilduma **Atsotitzak eta Neurthitzak**, 1657 urtean eman zituenak; hor uza haundiago da, eta osasunari sendakuntzari buruzkoak ez dira falta. Biltzailea berriz Zuberoako haundikia da, lege gizona Zuberoako lege-ordezkarari edo Zinegoitzi nagusia, gero Nafar erregearen aholkulari ere. Ezkontzaz aitonen semetu zen, Joana Erdoi-ekin uztartu zenean, beraz ez da jakile herrikoia hau ere. Oihenarteren urteak 1592 - 1667.eraingo dira.

Gure gaiarekin zerikusia daukatenak ez dira ugari: zortzi dira denetara, zübereraz bildu, 73.etatik, % 10, 9 nonbait hor.

Hirugarren atsotiz biltzailea, lege gizona dugu, protestantea, eta nobleku berria **Jakes Belakoa** Sorhoetako jauna. Jaun horren urteak 1586 - 1667 dira. Sendi hortako aurridera asko famatu egin ziren. Bela "Peyre" delakoa, katolikotu ta euskal idazlea bezala, eta hirugarren bat hitz jokuz "Belaspect" esaten zitzaion kargu haunditara iritxia. Higanauta jarraitzeak gazte garaian iheslari bizitza ezagutzera eramanez, Jakes zahartzaroan karguen galtzera eroango du. Haren bilduma Gustave-Clément Simon-ek argitaratu zuen - huts askorekin - argitaratu gabe dauden Belaren erdal "Tablettes" delakoetatik hartuak; geuk osasun ta sendakuntzari buruzko 9 atsotiz hartu ditugu, berrogei ta lauetatik, erran nahi baitu bostetatik bat gure gaiari datxikotela; halere Oihenarteren kopurua bikundu egiten du.

Uza ederrena, zaharrena eta Zalgizena da 195. atsotizetatik, 53 gure gaiari lotuak dauden ezker % 27, 10 irixten baita. Zerk egiten du arte hori? Zertzuk zehatzago lizatekela galdera? Lehenik, agian, Zalgize herriaren kezketatik hurbilago delako, bigarrenik garai hartan gosetea oraindik arazo latza baitzen, atsotitzen erdiak baino gehiago janari-edarietara buruzkoak baitira eta hamar goseari buruz, haien artean.

Uste izateko da haundiki horiek bildutako atsotiz askok - eskolatuak ziren ezker - latin iturri zeukatela baina ikusiko dugu zenbateraino Euskal Herriko giroaren eta garairen salatzaile diren.

2. Astolasterretako sendakuntza.

Astolasterren testuak Bordelen, Parisen eta Baionan daude gehien bat, baina Patri Urkizu-k egindako bilduma irakurtzeko parada izan dugu, argitaratu baino lehen eta hortik ateratu ditugu, osasunari ta sendaketarik buruzko orrialde metak; baten batek uste izango du antzerkiaz baliatzea herri-sendakuntza ikertzeko ez dela seriotasunez egiña eta neronek, herabe batekin egin gogo nuen, hain zuzen Patri Urkizu-k ez bazidan esan etnologia iturri izan litezkela asto lasterrak.

Ez dut uste astolasterretatik dena ateratu dudala XVIII. mendeko jan-edanez buruzko guztia hor dago ikertzekotan, geu gehienbat eta - lanaren mugatzeko - itsasoa baita gai hau, beraz geuk ez ditugu sendaketa ohiturak, eta sendatzaileak aipatzen dituzten bertsoak baizik bildu. Lehen urrats batean, historiariek garai hartaz eta gure herriaz eman itxurarekin tarte haundirik ba ote den ikusiko dugu ta zein, bal-

din bada.; bigarrenik, hainbestearaino karikaturak ote dira, hutsez beterik, garaiko sendatzaileak, garaiko senda errezetak eta sendabideak aipatzen dituzten bertsoak, hortarako J. P. Thillaud garaztar sendagileak, erdaraz idatzitako "*La médecine et les médecins au Pays Basque nord au XVIII^e s.*" delakoaz baliatuz, baita De Lancre, sorgin "erretzaileak", XVII. mendean idatzitako bi liburuez baliatuz, konparaketa laburrak egiteko, gure lekukotasunak ere halaxe baloratzeke edo beharbada zalantzan jarteko, hori ikusiko?

Atsotitzen alderantzizkotik, astolasterretan herriaren iritzia agertzenago da, herriak herriarentzat egindakoak testuak baitira, eta ez horregatik hizkuntza txarragoan.

3. Sendagailu errezetak.

Erremedioen gaiak mintzo, aitortu behar dut XVIII. mendeko zubereraz idatzitako eskuidazki bat dudala nagusiki erabili, baina lan horrek lau zati dituen ezker eta fotokopian 90. orrialde, orain arte, gehienbat, - nik ateratako zati bat izan ezik - argitara gabea egon da. Pariseko Bibliothèque Nationale-ko 117. eskuidazkia da "*Celtique et Basque*" izeneko katalogoan. Urrunago lan horren jatorria bilatuko dugu; badirudi d'Abbadie Urrustoiko jaunaren liburutegitik datorrela, beste züberotar idazki metaren gisa. Ikusiko dugu nola, zati bi, berriro modan dauden sendakuntzeekin zer ikusi haundia duten, alegia Fisiognomonía ta Morfopsikologia, beste zati bat ere, berpiztu da sasi-medikuntzen artean, harri preziosen erabilpena sendatzeko, laugarren zatia egin dugu, alde batetik Erromero edo Erremoliaren bertuteaz mintzo den testu luzearekin ta nekazaritzako errezeta batzuekin nahasian datorren, beste "*sorgin-errezeta*" zaharrekin, ikusi ondoren denetarik dagoela hor, Erdi Haroko sendakuntzatik hurbilagora.

Sendagailu errezeta horiekin ez da bukatzen, zorionez bilketa hau, beste bilduma daukagulako hau ere XVIII.ko zubereraz, baina abere-sendakuntzaz, (Mongongo Dassantzaren XVII. mendeko aldaera bat), konparaketak egiteko erabiliko dugu ta Barkoixe Peilleneko eskuidazkietan hatzeman duguna. Jatorrizkoa II.orrialdetik 45.eraingo doalarik..

Errezeta bilduma berriena, naski Althabegoitirena da XIX. mende azkenean bildua, baina ez dut **Oraingo herri sendakuntzan** sartu nahi izan, ezen idatzita izan baita, argitaratua XIX. mendean zatika. Aldiz oraingo medikuntzarentzat, "bilketa bizia" zintetan bildua, eta jendeei entzuna baizikan ez baitut sartuko.

4. Eliza liburuak eta beste.

Bi liburu ikertu ditugu, bata Tartasen, *Arima penitentaren...* Orthezen 1672.an argitaratua, barura, gosea ta osasun aipatzen baititu, alde batetik Elizaren ikuspegitik eta bestetik garaiko bizi moldearekin zerikusian.

Beste liburuak, Maitiaren *Pronus diebus dominicis*, 1676.en urtekoa da, zübereraz egiña ta hor osasunari buruzko eta haurren hiltzeari buruzko, ohe ixtripuei buruzko oharra baitakar eta bestalde, - legez kanpoko Osakidetza ez bada oraindik mugaturik -.

Elizak baztertzen eta kondenatzen dituenak agertzen direlako, hala nola sorginetara joaitea.

Bi liburu horien osagai moduan urte batzu goizago, 1615. De Lancre sorgin epaileak sailkatu sendakuntza ta sendagin-goak, frantsesetik sei orrialdeetan itzuli ditugu eta iruzkindu.

Pastoraletan eguneroko bizitza aipatzen ez delarik - eta beste testurik agertzen ez den bitartean - horiek ditugu zubererazko lekukotasunak: hirur esaera zahar bilduma, astolasterretatik ateratutako 117 bertso, edo ahapaldi, Bidaveren errezeta bilduma, bere 80. orrialdeekin, Barkoixeko abelsendakuntzazkoa, bere 34.ekin, bi eliza libururen zati, botanika bat 40 orrialdeetako, Denetara XVII. mendeko, bost testu, XVIII. mendeko hirur, XIX. mendeko bat, eta XVI - XVII. mendeko atsotizetatik hirur testu.

OSASUN TA ERITASUNAZ ATSOTITZAK XVI. XVII. MENDEETAN

Osasunari buruzko "Erran Zaharrak" Zuberoan

I. BILDUMA ZAHARRENA, BELTRAN ZALGIZENA XVI. MENDEAN.

Arlande Oihenarte-k, XVI. mende azkenean, Zalgizek bildu erran zaharrak, bere bilduman sartu zituen

A. Janariaz

1. Aza eta zopa.

3. Azak eta zopak suhandi nahi ditu.

4. Azen petik zopak jan ditu.

5. Azak bano lehen zopak jan ditu.

8. Duianak azer bipher.

Atsotitz horiek erakusten digute azak **onarpen eskaxa** duela, nahiz janari ugaria izan; Bostgarren atsotitzean zopak (ogia) aza baino lehen jan ditu, laugarrenean berdin azen azpian ogia bilatu du. Azkenik zortzigarren atsotitza darakusgu **piperra** ez zela etxe guztietan ta azaren hobetzeko ego-kia zela.

2. Artoa

205. Arto eta porru, bazkari gori.

Geroago ikusiko dugunez porrua estimu gutxitan dago baina artoak **jasotzen** du. Artoa dio Belako zaldunak bere 1780. urteko hiztegian, "*Turkiako gari ogia*" dela, ez alea.

3. Ogia

2. Batari harriaz, berzeari ogiaz

18. Ezta sori (haizu), horak (zakurrak) ogi

Bi atsotitzek erakusten digute, ogia ez zela oraindik zabortegira botatzen den janaria, zakurrek ere ez baitute jateko eskubiderik, edo atzaparbiderik (18. atsotitza). Gero aurretik, zopa aipatzean ikusi dugu orduko jaleak nola lehenik ogia jaten zuen. Esaera hau XVII. mendekoa da, baina de Froidour, Euskal Herriko basoak ikusten ibili zena, garai hartan dio, jendeak **arto-xehea** jaten zuela, ez ogia; beharbada eta oraingo artoa **Zea mays** L. ez baita mende hartan baizik Zuberoan sartu, esaera zaharrean **arto** hitzak ez du esan nahi berdina beharbada. Hamazazpigarren mendean, goian aipatu frantsesaren arabera garia (ogi-bihia) zergen ordaintzeko egiten zuten Zuberoan.

Halaz ere L. De Froidour-ek arto agertu berriaren albisteak ematen dizkigu

"Garia ta artoa (arto larria) Zuberoako bi uztak dirade. Arto xehea gutxitu egin da, geuk Frantzian esaten dugun Turkiako garia, delakoari nekazariak ohitu ezkeru. (1673.an) (ik. De Coincy-ren liburua, separata gisa emana **Louis de Froidour en Pays Basque**, Baiona, 1929)

4. Porrua.

45. Jan porru, gero dolu.

79. Emak sorhaioari (ezaxolari) porru, eska dagidik gatz.

204. Porru eta gatz barazkari latz

Hemen ere ta aza bezala, belar sendagintzan hain onetsia denak ospe txarra dauka eta halere besterik ez denean jan behar, bai 204. atsotitzean gatzarekin ere bazkaria gelditzen da latz.

5. Tipula.

30. Tipula jan, tipula lan.

Erran zahar berdina entzuten zen, lursagarra gatik otzagabiarren ahoan, eta naski berriagoa "Patata xan, patata lan"; agian idi-lan egiteko idiki edo behiki jan beharko zen, jendeek behintzat baratzeko gauzak baino gehiago gogoan zituzten haragikiak, eskulan gaitzik egiten baituzten.

Baratxuria-ren aipamenik ez dago, ez **erremuarena** atsotitz horietan, handikan berrehun urte, Belako zaldunaren hiztegian (1780) artoarekin batean horiek dira agertuko diren janari sendagailuak.

6. Haragia.

98. Xerri gorri haurren, haragia jaunen.

Aurreko galderari, hemen erantzuna, baina haragia jende helduentzat gordetzen zela erakutsiz; garai ederra ote zeren XIX. mendean, eta XX. mende hasieran haur askok ez zuten astean behin haragirik, ez txerrikirik jaten, ez eta heldu askok.

7. Gatz.

Ez dirudi euskaldunek - ez eta gure menditarrek ere - gatz gabezia ezagutu dutenik, gatzari esker guti baitiote, porruarekin batean, bazkari latza dela ikusi dugu ta egarria kentzeko ez eta emateko ez den edozertaz janari esaera erabiltzen da.

:145. Ez ur, ez gatz.

B. Edariaz.

26. Noren hon, noren gaitz nafar ardoa

180. Edale ona, kapela pian.

26. Atsotitzak aitortzen du batzuei on eta bestei gaitz dagiala ardoak, baina jendea aipatzen badu, ez du ardoaren neurria ematen; ala esan nahi du saltzalearen on ta eroslearen txar dela; ez dugu hala uste nafar ardoak oso ospe handia baitauka Zuberoan.

180. Atsotitzak, lehen zatian dio edale on, arauetz edale txarrak ere baitirade, gero, beharbada biltzaila aitonen seme baitzen, kapeladunek bazekitela bilaunek baino hobeki edaten irudiarazten du.